

## GURUTZAREN OINETAN

1

Badaukat tokitxo bat,  
zein goxo dan bera!  
Badaukat ordutxo bat,  
sekretu antzera.  
Han batzen gara Jesus  
ta biok batera,  
alkar maiteminduen  
hartuemonera;  
ez nago ezergaitik  
alperrik galtzera!

2

*Nor dan* itandu eta  
horra erantzuna:  
bere biziaren truk  
salbatu gaituna.  
Geure morroi eginda  
Jaun guztiahalduna,  
horrenbesteraino da  
deuskun maitasuna!  
Esateko moduan:  
Hau da hau Laguna!

3

*Zenbat sufridu dauan*  
begibistan dago:  
Jainko barik, dirudi  
gaizkile esklabo...  
Azken arnas emonda  
ezin dau gehiago;  
eta nik hau jakinda  
hain hotz zelan nago?  
Gerorako itzita,  
orduan akabo!

4

*Zergaitik sufritzen dau?*  
Ez al da jakina?  
Ahaztuta al daukagu  
gugaitik egina?  
Danok salbatzearren  
Haren ahalegina!  
Gurutzan hil zan Jesus  
hain maitale fina,  
zer poza berea gaur  
hasiko bagina!

5

*Zelan sufritzen dauan*  
jarri naz begira,  
Haren berbak gogoan  
hartzekoak dira.  
Danei dana parkatuz  
Jesus erruki da,  
lapur ona sartzen dau  
zeruen erdira;  
Jesusek bere hitza  
ez dau erretira.

6

*Gurutzaren oinetan*  
bada zer ikasi,  
Jesus deika dago ta  
erantzuten hasi.  
Han hartzen da nahibeste  
indar eta grazi,  
gainditzeko bideko  
sastraka ta sasi;  
Gurutzaren indarrez  
baietz irabazi!